

## 5G EUSKADI PROIEKTUAREN LEHEN URRATSAK

- **5G Euskadi proiektua 13 enpresa eta erakunde publiko eta pribatuk osatutako ekimen bateratua da.**
- **Jada amaitu da Zibersegurtasunaren erabileraren kasuaren lehen fasea.**

BCSCk aurrera jarraitzen du [5G Euskadi Proiektuan](#), geratu ere egin gabe. 13 enpresa eta erakunde publiko eta pribatuk burututako ekimena da, eta, horren bitartez, 5G zabaldu eta jarri ahal izango da Euskadiko hiru parke teknologikoetan (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba), erabilerako 9 kasu ezartzeko, mugikortasunaren, energiaren, industriaren, zibersegurtasunaren eta sareko zerbitzuen arloetan produktuak eta zerbitzuak garatzera bideratuta.

Zehazki, 9 erabilera-kasuak, kopuruaren arabera, hauek dira:

- **5G sareko zerbitzuak (3).** 5G sarea zabaltzea sektore elektrikoan, OMVan (operadore mugikor birtuala) eta OMRan (operadore mugikor erreala) gehi roaming nazionala eta FWA (Fixed Wireless Access).
- **Mugikortasuna (3).** Ontziratutako entretenimendu masiboaren banaketa, ontzien bideozaintza eta bidaiarientzako 5G banda zabala eta mugikortasunean dauden ibilgailuen mantentzea.
- **Energia (1).** Ikuspen areagotua eta operadoreen urruneko laguntza.
- **Zibersegurtasuna (1).** 5G saretarako funtsezko mehatxuak eta adierazleak modelatzea.
- **Industria (1).** Ekoizpen-prozesuak monitorizatzea eta kontrolatzea.

### 5G Euskadi proiektuaren egungo egoera

Gaur egun, zibersegurtasunera bideratuta, BCSCari lotutako erabileraren kasuan, lehen fasea dagoeneko amaitu da. Ondorioz, 5G sareak hedatzerakoan dauden mehatxuak identifikatzeko analisia egin behar da. Analisi hori apur bat gehixeago zehaztuta, 5G sareetako segurtasun-estrategien eta sare horiek irudikatzen duten paradigma teknologiko

info@bcsc.eus | 945 236 636

Parque Tecnológico de Álava  
Albert Einstein. 46-3ª – Ed. E7 01510  
Vitoria-Gasteiz



berriaren egiaztapen orokorra egin da. Horretarako, mehatxu nagusiak identifikatu dira, eta kontuan hartu dira, besteak beste, eragile ezberdinak, egon daitezkeen mehatxu-motak eta mehatxu horiek zein eremutan gerta daitezkeen.

Lehen fasea batik bat teorikoa izan da; horren ondoren, hurrengo urratsa praktikoa izango da, eta Arabako Parke Teknologikoan BCSCren instalazioetan hedatuko den 5G sarearen gaineko esperimentazioa jorratuko da. Egun, proben plan espezifikoak diseinatzen ari dira, MEC teknologiak (Multi-access Edge Computing) sartutako alderdiak bereziki aintzat hartuta. Etorkizun hurbilean, jarduera horiek zabalduko dira, proiektuaren erabilera-kasuen arazo espezifikoetan oinarrituta.

### **Aldaketak 5G sareari esker**

5G sareek abantaila asko ekarriko dituzte enpresa eta erabiltzaileentzat. Beste batzuen artean, gaur egun komunikatzeko dugun modua aldatuko da, 100 aldiz biderkatuko baitu ohiko banda zabala. Gainera, sarearen erantzun-denbora 5 milisegundora jaitsiko da, zerbait aproposa telemedikuntza, sareko jokoak edo etorkizuneko auto autonomoen erantzun-abiadura bezalako gaietarako. Gauzen Interneti (IoT) dagokionean, konektatutako gailu-kopurua 100 aldiz biderka daiteke, dagoeneko zaharkituta dagoen 4G baino %90era bitarteko kontsumo baxuagoa lortzeaz gain.

Aurreko guztiaren ondorio gisa, esan dezakegu 5G sarea dagoeneko errealitatea dela, eta gure onerako izango dela etorkizun hurbilean. *5G Euskadi Proiektuak* erreminta baliagarria izatea agintzen du, teknologia baten azpiegitura ahalik eta segurtasun osoarekin ezartzeko; halaber, Euskadiko eraldaketa digital seguruarekin jarraitzeko balioko du. Zibersegurtasunaren euskal zentroa jarduera hori sustatzen ari da sortu zenetik.

[info@bcsc.eus](mailto:info@bcsc.eus) | 945 236 636

Parque Tecnológico de Álava  
Albert Einstein. 46-3ª – Ed. E7 01510  
Vitoria-Gasteiz



EKONOMARIEN GARAPEN  
JASANGARRITASUN  
ETA INGURUMEN SAILA  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD  
Y MEDIO AMBIENTE